

'Kateriñe'

Gerren aurkako oihua

Maitena Ilarramendik bere amamak Gerra Zibilean bizitako kontakizunak komikira ekarri ditu Iñigo Sarasolaren marrazkiekin



Maitena Ilarramendi eta Iñigo Sarasola (eskubian) eta Kateriñen beste senide batzuk. De la Hera



Itziar Altuna

Donostia

Astelehena, 15 iraila 2025, 19:06

+ Seguir

Comenta

Guardar

Compartir

Kateriñe Letamendi Albisu tolosarrak 24 urte zituen 1936ko uztailen. Gerra Zibila hasi eta hilabetetara tropa frankisten bonbetatik eta mehatxuetatik ihes egin behar izan zuen, lehenengo Donostiara, ondoren Bilbora eta azkenean Frantziara. Bere bizia bihurtu zen kaosaren erdian, eguneroko batetan idatzi zituen bere barruko beldurrak eta kezak, baina beldurragatik eskuizkribu hori suntsitu egin zuen. Hala ere, bere senideei beti kontatu zizkien gudan bizitakoak eta 80 urte pasata garai hartako gertaerak berriro idatziz jartzea erabaki zuen. Orain, bere biloba Maitena Ilarramendik testu horiek egokitu ditu eta Iñigo Sarasola 'Monti' diseinatzailerak irudiak jarri. Emaizta 'Kateriñe' komikia da (Erein), «nire amamaren oihua» eta aldi berean gerren aurkako «oihu kolektiboa».

«Emozioz beteriko istorioa da» Uxue Razquin editorearen esanetan, irakurlearengan agonia, tristura eta frustrazioa eragingo dituen, guda bat zer sentituko baitu. Liburuak, «komikiaren lengoaiarekin amamaren ahotsa ez galtzea lortu du», gaineratu du aurkezpenean. «Istorio hunkigarria eta gogorra izan arren, erraz eta ondo barneratuko den liburua da».

«Poliki» eta marrazkiei «arreta jarritz» irakurri behar den lana dela aitortu du Maitena Ilarramendik, Iñigo Sarasolaren lana goraiatuz, «barru barrutik ateratako marrazkiak» sortu baititu, azterketa eta dokumentazio lan «zorrotz» baten emaitza, «garai hartako giro sozio-politikoa» arnasten laguntzen dutenak. «Argiak, itzalek eta koloreek ere badute sinbolismo ikaragarri handia», azaldu. du. Sarasolak ere ezagutu zuen Kateriñe, senide baitzuen, eta bere ahotan askotan entzun zituen gerra garaiko istorioak. Horrela, kontatutakoak eskuz marrazten hasi zen «beharra» sentitu zuelako eta Maitenari erakutsi zizkionean, honek amamaren idatzia egokitu eta guztia komiki batetan biltzea erabaki zuten.

Emakume sentsitiboa, intuitiboa eta memoria historiko bizikoa zen Kateriñe, «guda garaiko memoria barruan iltzatuta zuen», aitortu du bere bilobak, amamarekin zuen «lotura estua» gogora ekarriz. Komikian, aitonaren testigantza ere agertzen da (Eusko Jaurlaritzako agintarien txoferra izan zen), eta horretarako, Maitenak bere ama eta osaba-izeben laguntza izan du, bera oso txikia zenean hil baitzen aitona.

Komikia amamaren «irrintzia» izateaz gain, «oihu kolektibo» bat badela ere adierazi du Maitenak, izan ere gerra bera behin eta berriz errepikatzen da, «herri xehea da hiltzen dena beti. Goikoek mugitzen dituzte fitxak; behekoek, odola». Bizipen erreal honekin irakurlearen barrenera heldu nahi dute egileek eta «kontzientzia pizte bat» eragin, «txikia bada ere».

Temas Erein Argitaletxea Euskal Literatura

Comenta

Reporta un error

Publicidad

Lo más leído

Top 50 >

- 1 · El aeropuerto de Bilbao deja a cientos de pasajeros sin vacaciones tras cancelar una de sus rutas
- 2 · El restaurante con estrella Michelin más barato de Euskadi: menú por tan solo 48 euros
- 3 · Ana Brito y Xuso Jones la lían tras despedirse de su público: «Preferimos ser nosotros quienes os lo contemos»
- 4 · El cocinero que alucina con los precios de San Sebastián: «Seguro que es el día que más me gasto»
- 5 · Sigue cortado un carril de la AP-8 en Usurbil al perder ayer un camión la casa prefabricada que llevaba de carga

Ver más

Publicidad

Te puede interesar

- El truco de un endocrino para beber cerveza sin engordar

IDEAL
- Una doctora murciana alerta del peligro de usar este tipo de canela tan habitual: «Nos...

LA VERDAD
- Un aparcamiento pide más de 10.000 euros en multas a una mujer porque tardaba más de...

LAS PROVINCIAS
- El domingo, eclipse total de luna en La Rioja: ¿Podremos verlo?

LA RIOJA
- Jorge Lorenzo denuncia haber sido estafado con más de 200.000 euros con una noria q...

EL CORREO

Publicidad

